## SAN MARKOSEKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

1. Mankomunitateko Batzarrak 2012ko uztailaren 13ko bileran hartutako behin-behineko erabakia jendaurrean jartzeko epea amaitu denez inolako erreklamaziorik aurkeztu gabe, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki behin betiko bihurtzen da Aizmendiko zabortegian zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren eranskina aldatzea, zenbateko berriak ezarriz.

2. Ordenantza arautzailearen testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen da, eta 2012ko urriaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

3. Erabaki honen aurka, interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Salan, erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Donostia, 2012ko abuztuaren 28a.—Ainhoa Intxaurrandieta Ezkurra, Lehendakaria. (8274)

## AIZMENDIKO ZABORTEGIAN ZERBITZUAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

*1. artikulua.*

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, mankomunatutako jarduerak burutu eta zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasak arautu eta exijitzen dira.

Ordenantza honen aplikazio eremua San Markoseko Mankomunitateko eskubideko osoko kide diren udalei mugatuta dago, hau da, Donostia, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbil.

Ohizkoak ez diren arrazoiagatik eta aipatutako Mankomunitateko kideen aldez-aurreko baimenarekin bakarrik utzi ahal izango dira Aizmendiko zabortegian Mankomunitateko kide ez diren beste udaletan sortutako industri hondakin solido inerteak. Hondakinen uztea baimenduko da aldez aurretik ordaintzen bada baimenaren akordioan zehazten den zenbatekoa.

*2. artikulua. Zergagaia.*

Mankomunitateak Aizmendiko Zabortegian zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeak eratzen du zergagaia, hauek subjektu pasiboari partikularki eragin edo onura badakarkiote, beraiek zuzenean edo zeharka motibatu dituztenean, honela beraien egintza edo hutsegiteak Mankomunitatea behartzen dutelarik ondorengo jarduerak burutu eta zerbitzuak eskaintzera:

1. Eraikuntzetako hondakin solido inerteak uztea eta tratatzea.

2. Industri hondakin solido inerteak uztea eta tratatzea.

Zergagaiatik kanpo geratzen dira partikularrek isurtzen dituzten hondakinak, etxeko konponketetan eta etxebizitzak egokitzeko lan txikietan sortzen direnak, bidai bakoitzean 1.000 kg baino gehiago pisatzen ez badute eta hilean 3.000 kg-raino gehienez ere. Beti ere hondakinak zabortegiraino partikularren ibilgailuetan garraiatzen badira.

## MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

*Anuncio*

1.º De conformidad con lo establecido en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, una vez transcurrido el plazo de exposición al público del acuerdo provisional adoptado por la Junta de la Mancomunidad en fecha 13 de julio de 2012 sin que haya sido presentada reclamación alguna, se acuerda elevar a definitiva la modificación del anexo, estableciendo nuevos importes, de la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación de servicios y realización de actividades en el vertedero de Aizmendi.

2.º El texto íntegro de la citada Ordenanza reguladora se publica en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y surtirá efectos a partir del 1 de octubre de 2012.

3.º Contra el presente Acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de este Acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 28 de agosto de 2012.—La Presidenta, Ainhoa Intxaurrandieta Ezkurra. (8274)

## ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES EN EL VERTEDERO DE AIZMENDI

*Artículo 1.º*

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, se regulan y exigen tasas por la prestación de servicios y la realización de actividades mancomunadas.

El ámbito de aplicación de la presente Ordenanza queda limitado al de los municipios miembros de pleno derecho de la Mancomunidad de San Marcos, esto es, Donostia-San Sebastián, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria y Usurbil.

Unicamente en caso de fuerza mayor y previa autorización de los miembros de la citada Mancomunidad, podrán depositarse en el vertedero de Aizmendi los residuos sólidos industriales inertes producidos en otros municipios no miembros de la Mancomunidad. Este depósito se autorizará previo pago de la cantidad que específicamente se establezca en el acuerdo de autorización.

*Artículo 2.º Hecho imponible.*

Constituye el hecho imponible de las tasas, la prestación de servicios y la realización de actividades de la Mancomunidad en el Vertedero de Aizmendi que se refieren, afectan o benefician de modo particular a los sujetos pasivos, cuando han sido motivados directa o indirectamente por los mismos, en razón de que sus actuaciones u omisiones obligan a la Mancomunidad a realizar de oficio las actividades y a prestar los servicios siguientes:

1. Depósito y tratamiento de residuos sólidos inertes de construcción.

2. Depósito y tratamiento de residuos sólidos inertes industriales.

Quedan excluidos del Hecho imponible los vertidos llevados a cabo por particulares provenientes de reparaciones domiciliarias y pequeños trabajos de acondicionamiento de viviendas que no superen la cantidad de 1.000 kg. viaje, hasta un máximo de 3.000 kg. mensuales, siempre que los residuos sean transportados al vertedero en vehículos de dichos particulares.

*3. artikulua. Zortzapena.*

Tasak sortzen dira:

1. Zerbitzuaren eskaintza hasten denean, Mankomunitateak ekintza bat egin edo expediente bat hasteko eskaera aurkezten denean, edo jarduera mankomunatua burutzeko obligazio legalaren aurrean. Eskaera aurkeztean tasa aurrez ordaintzea exijituko da eta, hala badagokio, seinalatutako obligazioak betetzeko bermeak eratzea.

2. Hileko azkeneko egunean, hil horretan egindako isurketengatik.

*4. artikulua. Zergaldia.*

Mankomunatutako zerbitzuaren eskaintzea edo jarduera burutzea aldizkakoa denean eta tasaren sortzapena urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean gertatzen denean, zergaldiak urte naturala hartuko du.

Zerbitzua edo jarduera hasi edo uzten denean, zergaldia zirkunstantzia horietara egokituko da eta, hala badagokio, Ordenantzaren eranskinean seinalatzen diren ezaugarrietara, tasen zenbatekoa arautzen duena.

*5. artikulua. Subjektu pasiboa: Zergadunak.*

Tasen subjektu pasiboak izango dira, zergadun bezala, pertsona fisiko zein juridikoak, jabego-hartu gabeko heredentziak, ondasun-elkarteak eta nortasun juridikorik ez duten gainerako entitateak, ezargarria den batasun ekonomikoa edo ondare banandua eratzen dutenean, zergagaia eratzen duten zerbitzu eta jarduerak eskatu edo haien onura edo eragina jasaten badute.

Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

*6. artikulua. Zerga kuota.*

Zerga kuotak Ordenantza honen eranskinean finkatzen dira.

Eranskinean xehatzen diren kuota espezifikoak dagozkie sailbanatuta uzten diren hondakin berreskuragarri edo berziklagarriei, zabortegian horretarako bereziki jarri diren edukinontzietan utzi beharko direnak.

Ezin dira murriztu baldintza pleguan aipatutako epealdiei, baimenari eta eranskinari dagokienez.

*7. artikulua. Likidazioa eta Tasen ordainketa.*

Tasak ordainduko dira:

a) Zerbitzu-emate kasuan, zerbitzua eman aurretik Mankomunitateko kutxetan zuzenean gordailua eginez, beti ere adierazitako gutxieneko diru-kopuruz.

b) Aldez aurreko gordailua egiteko aukera ematen ez duten zerbitzu-emate kasuetan, ondoren aipatu bezela jardungo da:

Borondatezkoa: Fakturaren igorpen-datatik hasita 60 egunekoa.

Exekutiboa: Borondatezko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita, Mankomunitateko zergabilketa arautzen duen Ordenantzak ezartzen dituen errekarguekin.

c) Zerbitzuak emateagatiko tasen hileroko zenbatekoa 60,10 euro baino gutxiago denean, Mankomunitateak tasa eskudirutan ordaintzea exijitu dezake zerbitzua ematen den momentuan.

*Artículo 3.º Devengo.*

Las tasas se devengan:

1. Cuando se inicie la prestación del servicio, ante la presentación de una solicitud para que la Mancomunidad realice una actuación o inicie un expediente, o ante la obligación legal de realizar la actividad mancomunada. Al presentar la solicitud se exigirá el depósito previo de la tasa, y en su caso, la constitución de garantías en cumplimiento de las obligaciones señaladas.

2. El último día de cada mes, por los vertidos realizados a lo largo de él.

*Artículo 4.º Período impositivo.*

Cuando la prestación del servicio o la realización de la actividad mancomunada se efectúe de forma periódica y el devengo de la tasa tiene lugar el 1 de enero de cada año, el período impositivo, comprenderá el año natural.

En los supuestos de inicio o cese del servicio o actividad, el período impositivo se ajustará a esas circunstancias, y en su caso, a las características señaladas en el anexo a la Ordenanza al regular el importe de las tasas.

*Artículo 5.º Sujeto pasivo: Contribuyentes.*

Son sujetos pasivos de las tasas en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas, las herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades que, carentes de personalidad jurídica, constituyan una unidad económica o un patrimonio separado susceptible de imposición que soliciten o resulten beneficiadas o afectadas por los servicios y actividades que constituyan el hecho imponible.

En el caso de servicios o actividades realizados sin haber sido solicitados por los particulares pero motivados por actuaciones u omisiones de éstos, aquéllos a quienes les sean imputables dichas actuaciones u omisiones.

*Artículo 6.º Cuota tributaria.*

Las cuotas tributarias se establecen en el anexo a esta Ordenanza.

Corresponden cuotas específicas detalladas en el anexo, a los depósitos de residuos recuperables o reciclables en forma clasificada, depósitos que deberán realizarse en los contenedores específicamente habilitados para ello en el vertedero.

Son irreducibles respecto a los períodos señalados en el pliego de condiciones, autorización y el adjunto anexo.

*Artículo 7.º Liquidación y pago de las tasas.*

Las tasas se abonarán:

a) Tratándose de prestación de servicios, mediante un depósito por ingreso directo en las arcas de la Mancomunidad con carácter previo a la prestación del servicio y por la cuantía mínima señalada.

b) En los casos en que no sea posible el depósito previo, se actuará de la siguiente manera:

Voluntario: 60 días desde la fecha de emisión de la factura.

Ejecutivo: A partir del día siguiente al de la finalizacion del plazo voluntario con los recargos establecidos en la Ordenanza de Recaudación de la Mancomunidad.

c) Cuando el importe mensual de las tasas por prestación de servicios sea inferior a 60,10 euros, la Mancomunidad podrá exigir el pago en efectivo de la tasa en el momento de efectuarse la prestación del servicio.

Hondakina sortzen duen enpresa batek berarena ez den garraiolari bat erabiltzen badu hondakinak zabortegira eramateko edo dagokion tasa leihatilean ordaindu badu, Mankomunitateari eskatu ahal izango dio enpresaren izenean faktura egiteko, eskaria idatziz egin beharko delarik.

*8. artikulua. Itzulketa.*

Subjektu pasiboari egotzi ezin diren arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera ez denean eskaini edo garatzen, dagokion zenbatekoaren itzulketa egingo da.

*9. artikulua. Aplikazio orokorreko arauak.*

1. Mankomunitateak autolikidazio erregimenean exijitu ahal izango ditu tasa hauek.

2. Mankomunitateak dagozkion tasen ordainketarekin batera obligazioen betetzea bermatuko duten fidantzak aldez aurretik ematea exijitu ahal izango du.

3. Mankomunatutako zerbitzuen eskaintzan eta jardueren burutzean interesatuta daudenak ondorengoa egin beharko dute:

a) Mankomunitatearen baimena lortu.

b) Sinatu, hala badagokio, baldintzen plegua ezarritako baldintza eta betebeharrei bere adostasuna emanez.

c) Tasei eragin diezaieketen aldaketak jakinaraztea egiteko hamabost eguneko epearen barruan.

4. Tasa hauei aplikagarriak zaizkie San Markos Mankomunitateko Zergabilketa arautzen duen Ordenantza eta Zergen Foru Arau Orokorrean, Gipuzkoako Lurraldeko Bilketa Arautegian eta bere garapenerako araudian finkatutako kudeaketa, likidazio, inspekzio, bilketa, arau-hauste eta zehapenei buruzko arauak.

*10. artikulua. Azken xedapena.*

Ordenantza hau, eta bere eranskina, 2012. urteko urriaren 1ean sartuko da indarrean, eta bere indargabetzea edo aldaketa erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

En el caso de que los residuos sean enviados al vertedero por transportistas ajenos a la empresa productora del residuo o bien que ésta haya abonado en ventanilla la tasa correspondiente, se podrá solicitar a la Mancomunidad la emisión de la correspondiente factura a nombre de la empresa, solicitud que habrá de cursarse por escrito.

*Artículo 8.º Devolución.*

Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el servicio o la actividad no se preste o se desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

*Artículo 9.º Normas de aplicación general.*

1. La Mancomunidad podrá exigir estas tasas en régimen de autoliquidación.

2. La Mancomunidad podrá exigir junto con el pago de las tasas correspondientes el depósito previo de fianzas que garanticen el cumplimiento de las obligaciones.

3. Los interesados en la prestación de servicios y en la realización de actividades mancomunadas, deberán:

a) Obtener la autorización de la Mancomunidad.

b) Suscribir, en su caso, el pliego de condiciones, dando su conformidad a las condiciones y obligaciones impuestas.

c) Comunicar las modificaciones que afecten a las tasas dentro del plazo de quince días al de su realización.

4. Las normas sobre gestión, liquidación, inspección, recaudación, infracciones y sanciones establecidos en la Ordenanza de Recaudación de la Mancomunidad de San Marcos y la Norma Foral General Tributaria, Reglamento de Recaudación del Territorio de Gipuzkoa y su normativa de desarrollo, son de aplicación a estas tasas.

*Artículo 10.º Disposición final.*

La presente Ordenanza y su anexo surtirán efectos a partir del 1 de octubre del año 2012, y seguirá en vigor en tanto no se acuerde su derogación o modificación.

## ERANSKINA / ANEXO

## APLIKAGARRIAK DIREN TASAK / TASAS APLICABLES

- 1. Kategoria : Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak / Categoría 1: Residuos de construcción y demolición.
- 2. Kategoria : Industra-hondakin ez arriskutsuak / Categoría 2: Residuos industriales no peligrosos.

### 1. KATEGORIA: ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINAK / CATEGORIA 1: RESIDUOS DE CONSTRUCCION Y DEMOLICION

"Eraikuntza eta eraispen lanetan sortutako hondakin solidoak" / "Residuos originados en actividades de construcción y demolición"

| *Kodea / Código* | *Hondakin mota / Tipo de residuo* | *Kuota / Cuota* |
|---|---|---|
| 201 | Hormigoiaren, adreiluen, teilen eta material zeramikoen nahasketak, bloke handietan ez badaude.<br>Mezclas de hormigón, ladrillos, tejas y materiales cerámicos que no se presenten en grandes bloques. | 15,00 €/Tm |
| 202 | Idorrak garbitzearen ondorioz sortutako lohi lehortuak, %65etik beherako hezetasunarekin.<br>Lodos desecados procedentes del lavado de áridos con humedad inferior al 65%. | 15,00 €/Tm |
| 205 | Asfalto, mundrun edo betun solidoak giroko tenperaturan.<br>Asfaltos, alquitranes o betunes sólidos a temperatura ambiente. | 15,00 €/Tm |
| 206 | Eraikuntza-hondakin nahasiak, balioa eman dakiokeen hondakinik gabe<br>Escombro mezclado sin que lleve residuos valorizables. | 53,00 €/Tm |
| 206.1 | Bloke handietan edota hagarekin dagoen hormigoia.<br>Hormigón que se presente en grandes bloques y/o con varilla. | 53,00 €/Tm |
| 206.2 | Igeltsua oinarritzat duten eraikuntza-materialak (pladurra, eskaiola).<br>Materiales de construcción a base de yeso (pladur, escayola). | 53,00 €/Tm |
| 220.1 | Amiantorik ez duten isolamendu-materialak (haitzetako zuntza, beira-zuntza).<br>Materiales de aislamiento que no contienen amianto(lana de roca, fibra de vidrio,..). | 67,00 €/Tm |

2. KATEGORIA: INDUSTRIA-HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK /
CATEGORIA 2: RESIDUOS INDUSTRIALES NO PELIGROSOS

"Prozesu industrialetan sortutako hondakin ez arriskutsuak" / "Residuos no peligrosos originados en procesos industriales"

| *Kodea / Código* | *Hondakin mota / Tipo de residuo* | *Kuota / Cuota* |
|---|---|---|
| 207 | Zepak.<br>Escorias. | 87,00 €/Tm |
| 208 | Galdaketako arrak eta moldeak.<br>Machos y moldes de fundición. | 87,00 €/Tm |
| 208.1 | Iragazkiko eta jarioko hondarrak.<br>Arenas y filtros de chorreo. | 87,00 €/Tm |
| 208.2 | Granailaren eta jarioaren hondakinak.<br>Residuos de granallado y chorreado. | 87,00 €/Tm |
| 209 | Prozesu metalurgikoetatik eta ez-metalurgikoetatik datozen estaldurak eta erregogorrak.<br>Revestimientos y refractarios procedentes de procesos metalúrgicos y no metalúrgicos. | 87,00 €/Tm |
| 210 | Axalak.<br>Cascarillas | 87,00 €/Tm |
| 211 | Urratzaileak.<br>Abrasivos | 87,00 €/Tm |
| 212 | Errekuntzako errautsak.<br>Cenizas de combustión | 87,00 €/Tm |
| 213 | Ikatz aktibo ez-poluitzaileak.<br>Carbones activos no contaminantes | 87,00 €/Tm |
| 214 | Hautsak: metalikoak eta ez-metalikoak, gasen arazketan sortutakoak.<br>Polvos: metálicos y no metálicos, de depuración de gases. | 87,00 €/Tm |
| 218 | Beira hondakinak<br>Residuos de vidrio | 67,00 €/Tm |
| 219 | Zeramika-hondarrak edo, orokorrean, zeramikaren industriak sortutakoak.<br>Restos cerámicos o producidos por la industria cerámica en general. | 67,00 €/Tm |
| 220 | Beira-zuntza<br>Fibra de vidrio | 67,00 €/Tm |
| 221 | Poliesterrak produktu bukatuen moduan, konformatu gabeak edo produkzioko hondakinak.<br>Poliésteres en forma de productos acabados, no conformados o desechos de producción. | 67,00 €/Tm |
| 222 | Kautxua eta elastomeroak<br>Caucho y elastómeros | 67,00 €/Tm |
| 223 | Plastikoak edo polimeroak produktu bukatuaren moduan, konformatu gabeak edo produkzioko hondakinak.<br>Plásticos o polímeros en forma de productos acabados, no conformados o desechos de producción. | 67,00 €/Tm |
| 224 | Industria-lohi ez arriskutsuak eta lehortuak (hezetasuna % 65etik beherakoa).<br>Lodos industriales no peligrosos desecados (humedad inferior al 65%) | 87,00 €/Tm |